

# «Geroztik, gudan gera»: gerra luzea Francoren diktaduraren prozesu eratzaile gisa (1936-1948)

Josu Santamarina Otaola  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

1936ko uztailean militarren estatu-kolpetik aurrera hasi zena «Gerra Zibila» gisa ulertzea molde narratibo batzuen ondorioz indarrean dagoen konbentzioa da. Horren aurrean, hainbat ikusmolde historiografikok gerra kontatzeko marko tradizionalak zalantzan jartzen dituzte, besteak beste, Espainiakoa «Europako Gerra Zibila»ren parte gisa ulertzen dutenak, 1940ko hamarkadako borrokaldiak «gerra zibil irregular» bezala ikusten dituztenak, baita gerra eta errepresioaren logika bateratuak azpimarratzen dituztenak ere. 1936tik 1948rako prozesu historikoa *gerra luze* gisa ezaugarritu behar da, gerrak errepresiorako —politizidiorako— markorik aiposena ezarri zuela azalduz. Azkenik, gerra/errepresioa bera ere «teknologia» gisa ikustea proposatuko da, prozesu politiko horren dispositiboak berrikusteko eta azalpen historiko baten parte izateko.

GAKO-HITZAK: Gerra luzea · Frankismoa · Estatu Berria · Errepresioa · Okupazioa.

## «Aftermath, we are at war»: Long war as Franco's dictatorship state building process (1936-1948)

The understanding of the process initiated after the coup d'état of July 1936 as a «Civil War» responds to a convention resulting from some narrative molds. Against this, several historiographical works cast doubt on the traditional narrative frameworks about the war. Such as, among others, the one that defends that Spanish Civil War should be understood as part of a «European Civil War», the other one that shows the existence of an «irregular civil war» in the decade of 1940's and also those that show the existence of unified strong logics between war and repression. The historical process developed between 1936 and 1948 must be characterized as a *long war*, bearing in mind that the war was the propitious framework for a continuous repression with tints of politicide. Finally, this article also will propose the understanding of war / repression as a «technology», taking into account different devices typical of this political process.

KEY WORDS: Long War · Francoism · New State · Repression · Occupation.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.115.2020.3>

*Jasotze data:* 2020-01-31

*Onartze data:* 2020-02-29

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

2019ko espainiar zinemetako ikuskizun-sailetan gutxienez bi pelikulak kointziditu zuten euren testuinguru historikoaren hautaketan. Biek Gerra Zibila nola edo hala landu zuten. Bata, Alejandro Amenábar-en *Mientras dure la guerra* da, eta, bestea, Jon Garaño, Aitor Arregi eta Jose Mari Goenagaren *La trinchera infinita*. Ez da harrizkoa testuinguru horren aukeraketa. Edo hala pentsa daiteke prentsarekin elkarrizketa gehienetan bi pelikuletako egileek honakoa entzun behar izan zutelako: «Ez al da jada Gerra Zibilari buruzko pelikula asko —edo gehiegi— egin?» Gerra Zibila nolabait irudikatzen duen edozein ekoizpen kulturali dagokionez, horra espainiar kazetaritzan erreproduzitzen den konbentzioetako bat. Hala ere, hau ez da Gerra Zibilaren memoriaren eta masa-komunikabideen arteko erlazioak lantzeko espazioa. Dena den, badago zer edo zer azpimarratzeko modukoa *Mientras dure la guerra* eta *La trinchera infinita* filmen inguruan. Biek modu batean edo bestean Gerra Zibilari buruzko molde historiografiko hegemonikoak kolokan jartzen dituztela esan daiteke. Edo, behintzat, kontzienteki birplanteatzen dituztela.

*Mientras dure la guerra*ren protagonista Miguel de Unamuno da. Pertsonaiaren arku dramatiko eta ideologikoa 1936ko uztailan altxatu diren militar eta eskuindarrekiko babesaren ala errefusaren artean mugitzen da. Baina, horrekin batera, Amenábarren pelikulak Espainia kontzeptuaz ere zenbait auzi aurkezten ditu, Gerra Zibilean altxatuek inposatu zituzten hainbat dispositibo azalduz: bandera bi koloreduna, ereserki monarkikoa, gerraren «Gurutzada» katolikoaren izaera, Francoren *kaudillismoa* eta botere-hartzea, etab. Horrela, pelikulan argi erakusten da Gerra Zibilak izan zuen balioa prozesu politiko eraikitzaile gisa. Hein handi batean, prozesu nazio-eraikitzaile gisa.

*Mientras dure la guerra*ren garaileen dispositiboak —bandera, ereserkia, botere pertsonalista— kritikoki erakusten dituen bitartean, *La trinchera infinita* galtzaileen dispositiboak aztertzen ditu. Pelikula horren protagonista Andaluziako herri txiki bateko auzokidea da, ezkertiarra eta errepresaliatua. Altxatuen errepresio bortitzaren aurrean etxean ezkutatu eta «sator» («*topo*») bihurtzen da urte luzez. Barne-erbestea pairatuz, etxean bertan preso bilakatuz. Galtzaileen dispositiboek dagokienez, *La trinchera infinita* hildako gorpuetan, odolean, espazio itxietan —zelda bat bilakatzen den gela ezkutuan, esate baterako— baita hobi klandestinoaren ideian ere erreparatzen du<sup>2</sup>.

---

1. Artikuluaren izenburua Euzkadiko Jaurlaritzak 1937an Gernikako bonbardaketari buruz nazioarte mailan argitaratu zuen liburuxkatik ateratako aipua da. «Geroztik, gudan gera. Baño gure eñiak iñoiz ikusi ez duan bezalako gudatean». Pamielak argitaratutako faksimile-edizioa (2007). Bestalde, lan honi dagokionez, hau Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldean (GPAC, UPV-EHU) egiten ari naizen *Arqueología del Paisaje de la Guerra Civil en el País Vasco (1936-1948): materialidades, memorias y patrimonios en conflicto* izeneko doktore-tesiaren testuinguruan kokatu beharrekoa da, ikerketa honen gauzatzea UPV-EHUren PIF kontratu batek ahalbidetzen duelarik. Nire eskerrik zintzoenak luzatu nahi dizkiet artikulu hau zuzendu eta hobetzen lagundu duten ebaluatzaile zein lankideei.

2. *La trinchera infinita* pelikula hainbat kapitulutan banatuta dago. Kapitulu bakoitza argumentuari lotutako kontzeptu batekin eta haren definizioarekin hasten da. Kapitulu horietako bat «exhumazioa» da, horrela, XXI. mendeko memoria historikoari buruzko erreperitorio terminologikoa erabiliz zentzu narratibo batean.

Bi pelikulak batzen dituen elementu interesgarrienetako bat, esan bezala, Gerra Zibilari buruzko molde historiko narratibo hegemonikoak zalantzen jartzea da. Hori zentzu kronologikoan azaleratzen da batez ere. Ez da beharrezkoa filmak ikustea: izenburuek halaxe azaltzen baitute. *Mientras dure la guerra* —«Gerrak irauten duen bitartean»— enuntziatuak Franco «Gobernuaren Buru» izendatua izan zenean Burgoseko Defentsa Junta Nazionalak atxikitako denbora-mugapenari erreferentzia egiten dio. Franco burua izango zen «gerrak irauten zuen bitartean». Hala ere, izendapena argitaratua izan zenean hitz horiek ezabatuak izan ziren eta 1936ko urriaren 1ean Francok bere burua «Estatuaren Buru» gisa izendatu zuen. *La trinchera infinita* tituluak —«Lubaki amaigabea»—, aldiz, dispositibo beliko ezaguna hartu, lubakia, eta mugapena kentzen dio. Gerrak ez omen zuen amaierarik izan. Ez, behintzat, galtzaileentzat.

Azken ideia horren harira, hurrengo lerroetan Gerra Zibilaren izaeraz hainbat ideia plazaratuko dira. Prozesu historiko hau ezaugarritzeko hainbat aukera aurkeztuko dira. Izan ere, mugapen kronologikotik hasita, 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militararekin hasi zen prozesua historikoki definitzeak (ala birdefinitzeak) eztabaidagaia oparoa izaten jarraitzen du. Nahiz eta 1939ko apirilaren 1ean azken gerra-ohar ofiziala argitaratu zen —«*Cautivo y desarmado el ejército rojo...*»—, gerrari amaiera emanez, badira hainbat alderdi eta planteamendu konbentzio hori zalantzan jartzen dutenak. Gogoan izan behar da, esaterako, gerra-egoera ofizialki ez zela deuseztatua izan 1948. urtera arte (Marco, 2019: 241), ezta 1947ra arte, Erregimenak Bidelapurreria eta Terrorismoaren gaineko Errepresio Dekretua<sup>3</sup> argitaratu ez zuen arte, gerra-bandoa zen etengabe aplikatzen zen marko juridiko-normatiboa Estatuaren kontrako ekintza guztiei buruzko prozesuetan (Babiano *et al.*, 2018: 121-122).

Datozen lerroetan gerrari buruz ezarri diren diskurtso eta molde narratibo nagusiei errebasoa egingo zaie. Molde bakoitzak ez du soilik Gerra Zibila interpretatzeko ideia eta paradigmaren errepertorio bat eskaintzen, baita Francoren Diktadura eta ondorengo garaia ulertzeko erremintak ere. Iragana ulertzeko erreminta-kutxa horiek beti ulermen-marko politikotzat hartu beharko dira.

Horiek gainditzeko aukerak dauden ala ez ikustearren, beste planteamendu batzuk aipatuko dira. Esaterako, Espainiakoa europar mailako balizko «gerra zibil» batean kokatzen dutenak —«Europako Gerra Zibila» edota «Hogeita Hamar Urteko Gerra»—, bi mundu-gerrak batuz, baita haien artean dauden prozesu politiko zein militarrek barneratuz ere. Horrekin batera, «gerra zibila» kontzeptua bera sistematizatzen eta konplexutzen duten azalpenak ere badaude.

Baina, artikuluko honen funtsa gerrak, *gerra luzeak*, Francoren Diktadurari forma eta edukia emateko izan zuen balioa defendatzea da. Horretarako, gerra okupazio-prozesu gisa ulertua izango da, Estatu Berriaren eraikuntza eta hedapen-prozesu gisa alegia. Hori hobeto irudikatzeko, azken atalean, okupazio-gerra horren «teknologia» batzuei erreferentzia egingo zaie. Besteak beste, hobi komunei eta

---

3. *Decreto-Ley de 18 de abril de 1947 sobre represión de los delitos de bandidaje y terrorismo*, BOE, 1947ko maiatzaren 6a. Eskuragai: <<https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1947/126/A02686-02687.pdf>> (Kontsulta: 2020-01-19).

beste lurperatze klandestino edo irregularrei, lubaki zein beste errekurso belikoei, kontzentrazio-esparruei, espetxeei, azpiegitura publikoei eta monumentuei, etab. «Teknologia» delakoaren ideiak bi auzi desberdin baina elkarren artean osagarri irreferentzia egiten baitie. Alde batetik, Michel Foucault-i jarraituz, teknologia boterearen diziplina-mekanismo aktibo gisa (Foucault, 2009 [1975]: 177-178). Eta, bestetik, Arkeologiaren ekarpenetatik datozen planteamendu materialistei erreparatuz, teknologia horien izaera hautemangarria aintzat hartuz, gaur egun lurpean edo lurrazalean irauten duen ondare multzo gisa (González Ruibal, 2007; Etxeberria eta Solé, 2019).

## **2. Gerrari buruzko molde historiko hegemonikoak XX. mendean**

1936ko uztaillean, «gerra-egoera» deklaratu ostean, estatu-kolpeak kale egin zuen. Ez zen Estatuaren boterea modu azkar eta ez oso odoltsuan lortzeko gai izan. Izan ere, masa-gizarte batean, zeinean gizarte-talde anitzek Estatuarekin eta gobernuarekin nolabaiteko identifikazioa sentitzen duten, estatu-kolpeek arrakastarako aukera gutxiago dituzte (González Calleja, 2019: 145). Konspirazio militar eskuindarraren buruek babes asko jaso zituzten hasieratik, baina Armadaren zati handi bat eta Estatuaren hainbat atal haien kontrolpetik kanpo geratu ziren. Horrela, mobilizazioaren unea iritsi zen. Gerraren lehen fase honetan boluntarioratza armatuak —miliziak— garrantzi handia izan zuen —baita, jakina denez, Errepublikaren kontrolpeko guneetan ere—.

Altxatuek laster motibazio nazionalista hertsia baliabide gisa erabili zuten mobilizatorako eta barne-kohesiorako. Progresiboki etsaiaren irudia, «gorria», «anti-Espainia» gisa ere definitua izan zen. Aurrerago, bando bakoitzak atzerriko babes espezifikokoak jaso zituenean, eta, zehazki, Errepublikak Sobietar Batasunaren laguntza jaso zuenean, Francoren Erregimenak etengabe erabili zuen Moskuk kontrolatutako errepublika atzerriar eta «ekialdetar» baten irudia. Konspirazio judu, masoniko eta marxistari lotutako ideiek ere molde horrekin bat egin zuten. Núñez Seixas-ek azaldu bezala, nahiz eta altxatuak ez ziren izan diskurtso nazionalistak maneiatu zituzten bakarrak —Errepublikak diskurtso espainolista ere sakonki landu zuen, baita nazionalismo periferikoek euren abertzaletasun propioak ere—, hasieratik euren kausaren ikur nagusitzat hartu zuten (2006: 431). Horrela, altxatuena «Askapen Gerra» bilakatu zen, Espainia askatzeko «gerra nazionala».

Francoren Erregimenean seguruenik iraupen luze eta sendoena izan zuen ideologia nazionalkatolizismoa izan zen. Beraz, auzi erlijiosoak ere oso presente egon zen gerra azaldu eta justifikatzeko lehenengo diskurtsoetan. Errepublikanoak antiklerikalak omen ziren, Eliza katolikoaren arerioak eta, beraz, Espainiaren oinarri katolikoaren arerioak ere. Espainiaren identitate historikoa katolizismoarekin hertsiki lotuz, «anti-Espainia» hori erlijioaren etsai identifikatzea lortu zuten propagandista matxinatuek. Hala ere, alde errepublikanoan ezin zen erabat aurkeztu erlijioaren kontrako jarrera monolitikorik. Ez, behintzat, Iparraldeko Fronte delakoan, Agirre lehendakariaren Euzkadi autonomikoan, kleroa normaltasunez aritzen zenean. Gainera, euskal kleroaren parte garrantzitsu batek euskal nazionalismoarekin bat egiteak kontraesan garrantzitsuak eragingo zituen nazioarteko iritzi publikoan.

1937ko udaberrian euskal lurraldea guztiz konkistatzeari ekin zioten indar frankistek eta, horrela, oposizio-gune katolikoena suntsitua izan zenean, Eliza katolikoak altxamendua bedeinkatu ahal izan zuen «Gurutzada» gisa (Botti, 2007; Dionisio Vivas, 2012).

«Askapen Gerra»rena eta «Gurutzada»rena oso errekurso propagandistiko erabilgarriak izan ziren 1936 eta 1939 artean. Azken gerra-ohar ofizialarekin batera, «Garaipena» delakoaren diskurtsoa inposatu zen. 1939. urtea Espainia Berriaren «Zero Urtea» bihurtu zen, «Garaipenaren Urtea» («*Año de la Victoria*»), hasiera guztiz berri batena, behin eta lurralde osoa askatu eta Gurutzadarekin salbatua izanik (Box, 2010). Hala ere, egoera berriaren legitimazioa ez zen soilik orainaldi «baketsu» eta etorkizun «itxaropentsu» batzuei begira egituratzen. «Garaipena»ren ideiak hasiera berriaren nozioa barneratzen zuen arren, izaera erretroaktiboko zigor-politika garatu zen. Horren adibide gisa, 1940an Kausa Orokor delakoari hasiera eman zitzaion<sup>4</sup>, 1939ko Erantzukizun Politikoen Legearen jarraipen bezala<sup>5</sup>, Serrano Súñer-ek «justizia alderantziz» bezala izendatuko zuena aplikatuz. 1931tik aurrera izandako jarrera zein burututako ekintza politikoak zorrozki errebisatuak eta gogorki erreprimituak izango ziren. Logika horren pean, altxatuek 150.000 pertsona ingururen heriotza eragin zuten (Babiano *et al.*, 2018: 92).

«Garaipena»ren diskurtsoa oso erabilgarria izan zen ere Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan. Altxatuek komunismoa Espainian garaitu zuten bezala, halaxe egingo zuten gorrien nukleo gogorrean, Sobietar Batasunean (Núñez Seixas, 2016). 1941eko ekainetik 1943ko urrira, Francoren Espainia gatazkan «ez beligerante» izan zen bitartean, 50.000 soldadu inguruk Alemania naziarekin batera borrokatu zuten Dibisio Urdinean. 1943tik aurrera, Espainia ofizialki berriro «neutral» bezala aurkeztu zenean, Dibisio Urdina alemaniar *Wehrmacht*-ean integratu zen. Jada ez zen naziekin batera borrokatzeko garai aproposa. 1940ko hamarkadaren bukaeran eta 1950eko hamarkadan zehar, «Garaipena»ren ideiak antikomunismoan oinarritzen jarraituko zuen, baina jada Gerra Hotzaren joko geopolitikoaren testuinguruan.

1950eko hamarkada Erregimenaren zilegitasunaren errebisioaren aurreneko garaia izan zen. 1945etik aurrera, epe labur batez, nazioarteko xake-taula geopolitiko oso desatsegina suertatu zitzaion Diktadurari (Ysàs, 2019: 8-13). Faxismoa garaitu zuten erregimenen gaitzespenaren aurrean, frankismoak instituzionalizazioaren bidean sakondu zuen. Garai horretan gertatu zen Oinarrizko Lege direlakoaren bidezko Estatuaren normalizazio-prozesu sakonaren parte garrantzitsu bat. 1945ean Espainiaren Forua eta Erreferendum Nazionalaren Legea ezarri ziren. 1947an, Estatu Buruzagitzaren Ondorengotza Legearekin, Espainia Erresuma bihurtu zen. Espainia herrialde normal baten irudia lortzeko prozesuan sartuta zegoen.

---

4. *Decreto de 26 de abril de 1940 concediendo amplias facultades al Fiscal del Tribunal Supremo para proceder a instruir «Causa General» en la que se reúnan las pruebas de los hechos delictivos cometidos en todo el territorio nacional durante la dominación roja*, BOE, 1940ko maiatzaren 4a. Eskuragai: <<https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE//1940/125/A03048-03049.pdf>> (Kontsulta: 2020-01-20).

5. *Ley de 9 de febrero de 1939 de Responsabilidades Políticas*, BOE, 1939ko otsailaren 13a. Eskuragai: <<https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1939/044/A00824-00847.pdf>> (Kontsulta: 2020-01-20).

1960ko hamarkadan bi zilegitasun motaren arteko bizikidetzaren eman zen (Rodrigo, 2013: 77). Bata «jatorriko zilegitasuna» zen («legitimidad de origen») eta Diktadura «uztailaren 18ko erregimena» bezala identifikatzen jarraitzean zetzan. Hau da, gerran bere iturburu ideologiko eta justifikatzailea bilatzean. Bestea, aldiz, «egiteko zilegitasuna» zen («*legitimidad de ejercicio*») eta hori Erregimenak lortutako garaipen eta onuretan oinarritzen zen, garapen ekonomikoan eta bakean, batik bat. 1964 «XXV Urteko Bakea» ospatzeko unea izan zen. Gerra progresiboki, harro sentitzeko esperientzia erromantiko garbitzaile eta bedeinkatua izatetik, gertakari gogor baina beharrezko izatera igaro zen. «Bakea» delakoaren eskema honek argi uzten zuen 1936-1939 artean gertatutakoa «Gerra» izan zela eta jada ez beste izenez ezagutu beharrekoa —gogora ditzagun: «gurutzada», «askapena», etab.—. Orainaren ongizateak eta bakeak nahikoa izan beharko zuen Erregimenak jarraitzeko, gerraren oroitzapena lausotuz. Honakoa bai *Garaipenetik Garapenera* emandako pauso diskurtsiboa.

Hein handi batean, 1960ko hamarkadan ezarritako «Gerra Zibila» delakoaren ulermen-markoa aldaketa handirik gabe mantendu egin zen Franco hil ostean ere. Gerraren oroitzapena Trantsizioan oso presente egon bazen ere, bai kultur adierazpenetan baita ekoizpen historiografikoan ere, ez zen sakonki birdefinitua izan. Erbestetik Errepublikaren garaiko lider politikoak itzultzen ziren bitartean, Monarkia borboitarren demokrazian ez zen esperientzia errepublikanoarekiko memoria demokratikorik sortu. Aldiz, Errepublikaren inguruan «porrotaren errelatoak» sortzeko bideak behin eta berriro jorratu ziren, bai komunikabideetan baita historialari ezagunenentzat ere (Cuesta, 2008: 431-432). 1978tik aurrerako Monarkia konstituzionalak zenbaitetan, Diktadura erabili beharrean, Errepublika erabili zuen kontrako isla bezala. Errepublikak non huts egin zuen azpimarratu eta demokrazia berriak han arrakasta izan zuela azpimarratzeko joera nabarmena egon da. Errepublikak tolesgabetasunak eta trakestasunak jota seinalatuz, Trantsizioaren prozesua kontsentsuaren eta neurritasunaren garai gisa aurkeztua izan da (Aguilar, 2008; Baby, 2018). Hori terminologian ere antzematen da bereziki «Errepublika» eta «Demokrazia» kontrajartzen direnean Espainiako historiaren bi etapa zeharo berezi gisa.

Hala izanda, azken hamarkadetan aurrerakada historiografiko nabarmenak izan direla esan behar da. 1960ko hamarkadan, erbesteko egileek eta hispanista anglosaxoiek lehenengo lan historiko fidagarri eta kritikoak argitaratu zituzten (Blanco Rodríguez, 2007). 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, artxiboen irekiera progresiboarekin batera, errepresio frankistari buruzko lehenengo lanak argitaratzen hasi ziren, zenbaitetan maila lokaleko ikerketa-lanak izanik. 1990eko hamarkadan, espainiar akademiaren «normalizazio» delako baten testuinguruan, nazioartean eta nazioarteko faktoreetan arreta jartzen zuten ikerketak egiten hasi ziren, baita genero-perspektiba barneratzen zuten lanak ere (Chaves Palacios, 2000; Cenarro 2013).

### 3. Gerra ulertzeko proposamen historiografiko berriak

Denbora luzez jardun historiografikotik kanpo ikusiak izan diren arren, hamaika bider eztabaidak tartean izan direlarik, XXI. mendearen hasierako lehen hamarkadetan memoria historikoaren inguruko mugimendu, eskaera, kezka eta debateak oso presente egon dira. Jada 1990eko hamarkadan, mugimendu sozialetan bultzada horren lehen zantzuak antzematen hasi ziren, batez ere 1996tik aurrera Alderdi Popularraren gobernu eskuindar, nazionalista eta oldarkorraren garaietan. Memoria historikoaren marko kolektibo honen barruan hainbat aspektu sar daitezke. Alde batetik, Errepublikaren balioa onartuko zukeen memoria demokratiko baten eskaera. Bestetik, Giza Eskubideen lengoia transnazional batean oinarritu eta «Egia, Justizia eta Erreparazioa» trinomioa eskatzen duen plataforma politiko masiboa. Baita gerra eta diktadura birdefinitzeko aukera aurkezten duen une politikoa ere (Aróstegui, 2004; Yusta Rodrigo, 2014).

Azken urteetan historialari guztiek nola edo hala oso presente izan dute memoria historikoaren auzia. Zenbaitetan, «memoria» eta «historia» kontzeptuen arteko konparaketa analitikoak eta elkarrizketa epistemologikoak eman beharrean (esaterako, González Calleja, 2013), «memoria *versus* historia» eskema dikotomikoa planteatu izan da debate faltsu batean (Hristova, 2019: 314). Memoria nozioaren arrakastaren aurrean, Historiaren hainbat profesionalak nolabaiteko mehatxupertzepzioa sentitu izan dutela dirudi, pertzepzio horren oinarrian hainbat motatako motibazioak topa daitezkeelarik: historialariaren lanbidearen defentsa batetik, mugimendu sozialen kontrako burutazio elitistetara, positibismo hertsitik igaroz. Hala ere, zenbaitek ez dute mehatxu hori sentitu eta apurka memoriaren esparrua ikerkuntza historikoaren ikasgai bilakatzen ari da.

Diziplina historikoaren marjinetatik eta beste diziplina batzuetatik ere ez da mehatxurik ikusi memoria historikoaren inguruko eskaeren partetik. Guztiz alderantziz. Iraganarekiko lanketa kolektiboan erabakigarriak dira orain Antropologia Fisikoa zein Soziala, Arkeologia, Kazetaritza, Artearen Historia, Literatura Ikasketak, etab. Hau bereziki nabarmena da oso ezaguna den exhumazio edo deshobiraketan lanean (sintesi hurbil bat: Etxeberria eta Solé, 2019). 2000. urtean, Priaranza del Bierzo-n (Leon) metodologia zientifikoaren bidez lehen gerrako hobi komuna zabaldu zenetik, errepresaliatuen bilaketa, berreskurapena eta identifikazioa lan kolektibo eta diziplina anitzeko gisa ulertua izan da. 1936ko gerraren errealtatea jada ez da historialarion barruti itxia eta iragana esparru irekia bilakatu da profesional mota ezberdinentzat. Hala ere, nabarmena da zientzia ezberdinetatik sortutako datu eta interpretazioek oraindik oso oihartzun eskasa dutela historiografia akademiko orokorrean. Esaterako, exhumazioen lanetik jasotako ezagutza zientifikoa ez da diskurtso historikoa aberasteko erabilia izan (Solé, 2019), salbuespen bakan batzuetan izan ezik (aipatzearren: Errazkin eta Agirre-Mauleon, 2009; González Ruibal, 2016; Aguilar eta Payne, 2018; Muñoz-Encinar, 2019).

Hala eta guztiz ere, XX. mendeko iragan traumatikoaren biziberritzeak arretagune eta planteamendu berritzaileen atek zabaldu omen ditu. Zentzu horretan, badira bi ulermen-marko elkarren artean osagarriak izan daitezkeenak eta «Espainiako Gerra Zibila» delakoaren narrazio-molde hegemonikoa nolabait kolokan jartzen dutenak.

Alde batetik, aipatutako 1990eko hamarkadatik emandako historiografia akademikoaren internazionalizazioari lotuta (Godicheau, 2012: 86-88), hainbat egilek Espainiako Gerra Zibilaren faktore exogenoetan erreparatu dute. Potentzia liberalen esku-hartze eza, potentzia faxisten esku-hartze intentsiboa altxatuen alde, Sobietar Batasunaren babesa Errepublikarekiko III. Internazionalaren testuinguruan, etab. Gerra horretan, Bigarren Mundu Gerraren aitzindari zuzen gisa, nazioarteko testuinguruak erabateko garrantzia izan zuen (Pereira Castañares, 2019; Moradiellos, 2019). Faktore exogeno horien presentzia hain erabakigarria izatearen azalpen markoa «Europar Gerra Zibila» izan daiteke. Ideia horren lehen sistematizataileetako bat Ernst Nolte izan zen (1996). 1917-1945 urteen arteko arku kronologikoan emandako gatazka politiko eta militarrek faxismoaren eta komunismoaren arteko antagonismo totalitario gisa ulertu dira. Hala ere, mota horretako azalpenek demokrazia liberalaren krisiaren zentzuari kalifikazio katastrofikoa eransten diote, sistema politiko horiek homeostasiaren materializazioak izango bailiran. Labur esanez, liberalismo europarraren irudi idealizatu baten naturalizazioa eragiten dutela esan daiteke.

Enzo Traversok, aldiz, 1914-1945 urteen arteko «Europar Gerra Zibila» gerra anitzen barne-erlazio konplexu gisa ulertzea proposatzen du (2009). Aurkaritza mota desberdinak nola edo hala elkarrekin korapilatuta agertu ziren garai horretan: kapitalismoaren eta kolektibismoaren arteko aurkaritza, faxismoaren eta liberalismoaren artekoa, klase herrikioen eta okupazio-indarren «txotxongilo» izango ziren oligarkia lokalen artekoa, etab. Izan ere, Bigarren Mundu Gerra nazio-estatuaren arteko gatazka beliko gisa aurkeztua izan den arren, gerra zibil askotarikoak eman zirela gogoan izan beharrekoa da. Claudio Pavonek horrela azaldu zuen Italiako kasuan (1990), bertan emandako gerra desberdinak seinalatuz: lehenik, partisoenen eta Italiar Errepublika Sozialaren faxisten arteko gerra zibila; bigarrenik, ezkerreko gerra iraultzailea partisoenen eskutik; eta, azkenik, inbasore nazien kontrako askapen-gerra nazionala. Horiek guztiak elkarren artean lotuta eta nahastuta zeuden.

Gatazkaren izaera polimorfikoaren azpimarraketa hauen testuinguruan, ikuspegi marxistetatik zera salatu da: askapen-gerra nazionalaren aldeko ikuspegiak lehenetsi dira, askapen sozialerako prozesu iraultzaileen oihartzuna intenzionalki isilaraziz. Zentzu horretan, Arthur Koestler komunistak 1942an Britainia Handitik honakoa salatu zuen: 1945ean amaituko zen gatazka belikoa «gerra zibila European, iraultzailea, eredu espainiarrari jarraituko liokeena» izan behar zen eta ez, burgesiak hala defendatu gisa, okupatzaile arrotzen kontrako gerra nazional hutsa (in Bamberg, 2015: 369-378). Aldi berean kanpo- eta barne-gatazkak izan ziren 1914tik aurrerakoak, «nazional gisa justifikatuak, baina klase- eta erlijio-terminoen arabera borrokatu izan zirenak» (Rodrigo, 2015: 7).

Dena dela, gerren aniztasunaren ideari jarraituz eta gerra zibilen ulermen-marko europarretik aldendu gabe, Jorge Marcok, gerrilla antifrankistaren ikerketa-arlotik, 1936tik 1952ra Espainian hiru gerra mota garatu zirela defendatzen du (2019: 8-9). Stathis N. Kalyvas-en eredu tipologikoa aplikatuz (2007), uztailaren 18tik aurrera honako hiru gerra zibil mota izan ziren:



- *Gerra zibil simetriko ez-konbentzionala*. Gatazka beliko hau 1936ko uztailetik 1937ko udaberrira arte luzatuko zen. Altxamendu militarrek bi prozesu piztu zituen: alde batetik, Errepublikaren desintegrazio partzial bat, eta, bestetik, Estatu altxatuaren instituzionalizazioaren hasiera. Fase horretan, bi bandoek, estatu-egiturarik gabe edo estatu ahul gisa, errekurtsoen eskasia pairatuko zuten. Armada erregularrekin batera boluntariotza armatuak erabateko protagonismoa izan zuen. Lurraldearen gaineko morfologia belikoari dagokionez, «zutabeen gerra» egin zen, fronte egonkorrik gabe, mugimendu bizkorrekin eta, altxatuen kasuan, praktika kolonialen presentzia indartsuarekin (Balfour, 2018: 482).
- *Gerra zibil konbentzionala*. 1937ko udaberritik aurrera jada bi Estatuaren arteko gerraz hitz egin daiteke. «Gerra Zibila» delakoaren ideia zentzu kanonikoago batean emango litzateke lurraldea bera *de facto* bi subiranotasun-sistema desberdinetan zatituta zegoelako: Espainia errepublikanoa eta Espainia frankista. Neurri handi batean lehenago aipatutako faktore exogenoen laguntzari esker, armadek ere itxura formalagoa hartu zuten. Gerra zibil konbentzionalaren zantzuak 1939ra arte antzeman ziren.
- *Gerra zibil irregularra*. 1939tik aurrera beste gatazka politiko-militar berezi bat martxan jarri zen. Diktaduraren errepresioak *iheslari*en mugimendua eragin zuen okupatutako hainbat zonatan. Iheslari horiek lehenengo gerrilla-taldeak osatu zituzten, Jorge Marcok eta Mercedes Yusta Rodrigok hala azalduta, hasierako une horietan erlazio intimoek erabateko garrantzia zutelarik (2019: 232, 240). Gehienetan «mendira joandako» talde haiek «auzokide armatu» direlakoek osatuko zituzten, familia- eta adiskidetasun-harremanak tartean (Marco, 2016). 1944 eta 1948 artean, Espainiako Alderdi Komunistak erresistentzia antifrankista armatua bere babespean antolatzeko saiakerari ekin zion, «benetako armada irregularra» osatu nahian. Beste aldean, Estatu Berriaren partetik, hasiera batean Armada bera lan errepresiboetan inplikatzeko bazen ere, progresiboki indar polizialak izango ziren gerrillaren kontrako lanetan murgilduko zirenak. Batez ere, Guardia Zibila eta Brigada Politiko-Soziala. 1940ko hamarkadaren bigarren partean, gerrillaren kontrako gerra honek erreperitorio errepresibo bortitzen hedapena ekarri zuen, 1936ko udan gertatutako *izu beroa* delakoaren antzekoa. Esaterako, exekuzio estrajudizialak, hildakoen gorpuen erakustaldi publikoak eta familien kontrako errepresaliak zabaldu ziren. Indar militar zein polizialekin lankidetzan aritzen zen boluntariotza armatuaren berrezarkuntza ere egin zen: 1945ean Francok Somaten Armatua berrezarri zuen, boluntario politiko-militarren sareak osatuz<sup>6</sup>.

---

6. Decreto de 9 de octubre de 1945 por el que se dispone que el vigente Decreto de 21 enero de 1936, que autorizaba en Cataluña la formación de Somatenes armados, se extienda con la misma finalidad que señala su artículo 1º a todo el territorio español, en el que dependerán de las respectivas Autoridades provinciales, BOE, 1945eko urriaren 25a. Eskuragai: <<https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE//1945/298/A02542-02542.pdf>> (Kontsulta: 2020-01-19).

Eskema honen aspektu interesgarriak askotarikoak dira. Hasteko, Espainiako *gerra zibil irregular* hori Europako beste herrialde batzuetan izandako fenomenoekin alderagarria da. Kasurik argiena Greziako Gerra Zibila (1946-1948) izango litzateke: Espainiako PCEn kasuan bezala, Grezian ere, Britainia Handiaren borondate kolonialak eta Gerra Hotzaren geopolitika berriak nahasten zituen testuinguru batean, partisoen 1945aren osteko armagabetzeari uko egin zioten,

Ulermen-marko horren azpimarratzeko moduko beste puntu bat zera da: gerraren izaera polimorfikoari erreparatuz, gerraren eta errepresioaren arteko lotura estua. 1952ra arte, azken talde armatuak pixkanaka desegin ziren arte, garatutako gerra irregular horretan zaila da gerra-ekintzak eta errepresio-ekintzak bereiztea. Ofizialki ez zen gerra irekia, nahiz eta gerra-egoera 1948ra arte mantendu zen. Diktaduraren prozesu estatugilean, erresistentzia antifrankista armatua, gehienetan landa-eremu periferikoetan garatu zen<sup>7</sup>. Beraz, erresistentzia-espazio horien iraupena Estatuaren hutsegite-nukleoan iraupen gisa ikus daiteke. Estatuaren nahia, noski, bere indar efektiboa zabaldu eta inposatzea zen. Horregatik, errepresioak lehen fenomeno gerrillariak sortu zituen bezala, errepresioa bera ere izango zen erresistentziarekin amaituko zuena. Horrela, Estatu Berriak Espainian martxan jarritako okupazio-prozesuan biolentzia errepresiboaren funtzio estrukturrantea ere argi azaltzen da.

Azkenik, Jorge Marcok deskribatutako sekuentzia historikoan badago garrantzitsua den beste ohartarazpen bat ere. Frankismoaren instituzionalizazio-prozesuan, ikerketa gehienek aipatzen dute *izu beroa* delakotik *izu hotza* delakorako bidea garatzen dela. Gerraren lehen uneetan errepresioa indar militar, polizial zein boluntarioek gauzatu zuten, exekuzio estrajudizialak nagusi izan zirelarik (*izu beroa* edo *odol beroko izua*). 1936tik aurrera, Estatu frankistak errepresioa instituzionalizatzeari ekin zion, etsai politikoak zigortzeari zuzendutako legeak eta prozedurak garatuz. 1939ko Erantzukizun Politikoen Legearen ostean, 1940ko Kausa Orokorraren gauzatzea izango zen errepresioaren burokratizazioaren jomugetako bat (*izu hotza* edo *odol hotzeko izua*). Hala ere, aipatu bezala, 1945etik aurrera, zibilen inplikazioa berriro zuzena izango zen lubakirik gabeko gerra honetan, baita erreperitorio errepresibo zaharren berrezarpena ere. Horrek zera erakusten du: errepresio frankistaren instituzionalizazioa ez zela inondik inora prozesu lineala izan eta atzerako pausoak nabarmenak izan zirela, batez ere, Estatuak bertan errotzeko zailtasunak topatzen zituen testuinguruetan. Hona hemen *gerra luzearen* ideia edo etengabeko gerra baten marko proposa estatugintza frankistan.

#### 4. Estatuagintza biolentzia gisa edo okupazioaren teknologiak

1936an piztutako gerra *okupazio-gerra* gisa azaltzea ez da berria den zer edo zer. Gutmaro Gómez Bravok aipatu bezala, «okupazio» terminoa harro erakusten zuten organismo anitz antolatuta zituen bando frankistak berak, esate baterako, 1937ko otsailean sortutako *Auditoría de Guerra del Ejército Ocupación* delakoa

---

7. Gerrilla antifrankistarenak espazio «periferikoak» ziren, ez zentzu geografikoan —gerrilla-fenomeno esanguratsuak agertu baitziren Penintsulako erdialdeko probintzietan (Madril, Guadalajara, Teruel, etab.)—, baizik eta zentzu sozioekonomiko zein politikokoan, Estatuaren botere efektiboa ahultzat har zitekeen espazio gisa hain zuzen.

(2017: 122). «Askapen Gerra»ren diskurtsoak «okupazioa» zekarren politika gisa. Hau da, militarri hartutako guneen «garbiketa», zinezko zein balizko etsai politikoen sailkapena eta suntsipena. Francok halaxe adierazi zuen, Cantalupo diplomatiko italiarrarekin hizketan: «*La reconquista del territorio es el medio, la redención de los habitantes el fin*» (in Anderson, 2017: 13). Frankismoaren helburua gorriengandik eta Espainiaren beste etsaiengandik nazioa garbitzea zen, ingeniarietza sozialeko programa gauzatzuz.

Okupazio frankistaren ardatza informazioaren eta biolentziaren arteko nahasketa zen. Konkistatutako guneetan Administrazio frankistak informazio- eta errepresio-makineria aplikatzen zuen. Atxilotutako borrokalari errepublikanoek identifikazio eta klasifikazio politikoko sistema batean barneratuak izaten ziren. Horren lehenengo adibide esanguratsuenetako bat euskal frontearen erorketaren ostean gertatutakoa izan zen. Santoñako errendizio partzalean, milaka euskal soldadu italiarren zaintzaren pean geratu ziren. Autoritate frankistek egoeraren kontrola hartu zutenean, alde aurretik itundutako guztia bertan behera utzi eta soldaduen ixteari, zigor gogorreari eta sailkapen-lan masiboari ekin zioten. Oposizio-kide bakoitzaren gaineko informazioa bildu behar zen, sailkapen-lanean balizko etsai edo subordinatuen tipologia finkatu ahal izateko. Lan horretan hiru kategoria nagusi ezarri ziren: «adiskide», «ez-adiskide» eta «arriskutsu». Iparraldeko Frontearen konkista progresiboan, hurrengo urteetan zehar funtsezkoak izango ziren oinarri errepresiboak finkatu ziren. Hau da, kantauriar lurraldeen okupazioa Espainia osoan egingo zenaren entsegua izan zen (Gómez Bravo, 2018).

Informazioaren eta biolentziaren arteko nahasketa-sistema honetan, errepresioaren funtzio bikoitza azpimarratzeko modukoa da. Izan ere, alde batetik, errepresioa izan zen Estatu Berrirako arriskutsuak izan zitezkeen elementuak baztertzeko eta suntsitzeko errekurtsua. Informazio-zerbitzu frankistek, okupazio-prozesuetan, oposizioko organismo guztiak ikertzeari ekiten zioten, sindikatu, alderdi, elkarte eta administrazio guztien dokumentazioa bilduz. Honakoa «memoria errepublikanoaren bahiketa» masiboa izan zen (Cuesta, 2008: 430). Delitu esanguratsuenetako bat «errebelioari babesa» zen, hain zuzen ere Errepublikaren sistema legalari leial mantendu zirenei aplikatua. 1939an Erantzukizun Politikoen Legeak 1934tik aurrera emandako «krimenak» zigortzen zituen, Serrano Súñer-ek «justizia alderantziz» bezala deskribatu zuena izanik. Horrela, «informazio erretrospektiboa» gerra/errepresio dinamika bateratuaren oinarrietako bat izan zen. Informazioari dagokionez, zera azpimarratu behar da: propaganda frankistak etsaiaren irudi sinplifikatu eta totalizatzailea zabaltzen zuen arren —«gorria», «gorri-separatista», «anti-Espainia»—, errepresio-sistemak *bestearen ezagutza sakonagoari* ekin behar izan zion. Ezagutza hori behintzat susmagarrien identitate kolektiboari zegokienean. Frankismoak egotzitako erruek gehienbat indibidualki burututako *ekintzak* epaitu baino areago, kolektibo batzuen *parte izatea* zigortzen baitzuten. Horra hor frankismoaren genozidio politikoaren oinarria, Estatu Berriak gauzaturako politizidioa.

Beste aldetik, errepresio-sistema frankistak gizarte zibilaren parte-hartzea bultzatu egin zuen (Cenarro, 2002). Hau hasierako uneetatik aurrera nabarmena izan zen, 1936ko lehen uneetan herriz herriko exekuzio estrajudizialeetan agente

lokalen rola oso garrantzitsua izan zenean. Erik Zubiagak Bizkaiaren kasuan aztertu duen moduan, salaketen sistema izan zen zibil partikularrak eta Estatu errepresiboa biltzeko baliabide garrantzitsuenetako bat (2017: 18). Salaketek *nia* eta *bestearen* arteko bereizketa markatzen zuten, *nia* hori —«adiskidea», «nazionala»— Estatu Berriarekin identifikatzen zelarik, *bestearen* —«gorria»ren— garbiketan laguntza eskainiz. Salaketen atzean jarrera anitz topa daitezke: Estatu Berriarekiko leialtasun politiko hertsitik, biziraupen indibidualerako kalkulu hotzera.

Zenbaitetan, jakina den bezala, interes pribatuak errepresioaz baliatu ziren, mendeku eta adibidezko zigorrak aplikatzeko. Egitura sozioekonomiko latifundistako zonetan errepresioak klase-izaera nabarmena izan zuen eta interes pribatuen garapen mota horrekin lotu daiteke. Euskal Herrian, adibide aproposak Arabako eta Nafarroako Erriberetan topa daitezke, zeinetan nekazari-sindikalismoa eta jornalarien masa soziala gogorki zigortuak izan ziren (Gómez Calvo, 2014; Altaffaylla, 2018 [1986]). Honakoa, estatu-errepresioaren profitatze pribatua izan zen, baina aldi berean, gizartearen hainbat sektore estatalizatzeko bidea, halako pribatitzazio/estatalizazio dinamika aldebikoan. Estatuak gutxiengo baten interes pribatuak asetzeko sistema eskaintzen zuen eta horrek jabe ertain eta handi askoren kolaborazionismoa bultzatu egin zuen. Ikusi bezala, modu batean edo bestean, errepresioa izan zen Estatu Berrian integratzeko erreminta nagusietako bat.

Horri jarraituz, errepresio-sistema frankistak zentzu binarioa zuen, aldi berean esklusio- eta inklusio-sistema izanik. Gerra luzatzeko borondate frankistaren barnean ere, dikotomian oinarritutako motibazio politikoa beti presente egon zen. Gerraren performatibotasunak gatazkan aktiboki parte hartzea eragiten zuen. Gerra zen indibiduoak eta gizataldeak posizioak hartzera derrigortzen zituen markorik egokiena. Horrela, gerra bera zen «adiskide» eta «etsai» direlakoan artean bereizteko lehen bahea. *Gu* delako bat lubaki propioetan lantzen zen, gerra-esperientzia bera «komunitate nazional basatia» sortu eta sendotzeko mekanismoa izanik (Graham, 2012). *Bestea* edo etsaia nor zen identifikatzea oso erraza zen: *beste* lubakian zegoena. Gainera, Estatu Berriaren kultura politiko nagusiek —tradizionalismoak eta falangismoak— erabateko garrantzia ematen zioten gerrari prozesu eraikitzaile gisa (Alonso Ibarra, 2016). Erreketean kasuan XIX. mendeko saiakeren jarraipen loriatsua zen honakoa, tradizioaren zentzuarekin bat eginez. Falangistentzat, ideien erreperitorio faxista praktikan jarritz, lubakiak ziren «gerra-anaitasuna» eta odolaren bidezko palingenesia nazionala gauzatzeko dispositiboak.

Gerra/errepresio prozesu hau «teknologia» gisa uler daiteke, Alfredo González Ruibal arkeologoak egin duen bezala. Izan ere, «teknologia» nozioak literalki «materia zehatz bat beste zer edo zer batean transformatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, prozesuak eta keinuak» aplikatzean datza (2016: 266). Diziplinari buruzko Michel Foucaulten lanetan ere, gorputzak diziplinatzeko dispositiboek hitz egiten da, hau da, teknologiez (2009 [1975]). Errepresioan oinarritutako *gerra luzea* teknologia gisa uler daiteke: espainiar gizarteari (edo gizarteei) aplikatu beharreko teknologia edo eraldatze-prozesua «Espainia nazionala» sortu ahal izateko. Arkeologian funtsezkoa den beste kontzeptu bat erabiliz, teknologia «kate tekno-

operatibo» desberdinen arabera uler daiteke, fase bakoitza sistemaren katebegi bat izanik. Kate tekno-operatibo horiek dispositibo espezifikoetan materializatzen dira.

Gerraren performatibotasunak lubakian eta beste egitura militarretan zuen oinarri materialetako bat. Aipatu bezala, 1936tik aurrera gerrak forma desberdinak hartu zituen, baina fronteen logika —hori literalki lerroen bidez osatuta egon ala ez— beharrezkoa zen errepresioa gauzatze aldera. Horrela, lubakia jada lehen sailkapenerako dispositibo bat izan zitekeen.

Gerra-fronte konbentzionala materializatu ez zen lekuetan —esate baterako, Nafarroan—, ez zen lubakirik eraiki, baina badago prozesu historiko horren beste lurpeko egitura teknologiko esanguratsua: hobi klandestino. Exekuzio estrajudizial zein judizialen produktu esanguratsuenetako bat da hobi komuna. Askotan, errepresioaren dinamikek horiek ezkutatzera bultzatzen zuten, baina beste aldi askotan hobi komunaren presentzia nabarmena zen inguruko komunitate lokaletan. Hobi klandestinoetan lurperatu baino lehen, hildako gorpuen erakustaldi publikoak dispositibo horren alor errepresibo orokorra azaleratzen zuen. Hildakoen kudeaketa mota hauek *nekropolitika* delakoaren koordenatuen artean uler daitezke (Mbembe, 2003), baina, aldi berean, hobien presentziak «bizidunen komunitatean» ere eragina zuenez, errepresio-sistemak inposatzen zuen *biopolitika* frankistaren parte gisa ikus daitezke (Ferrándiz, 2012: 148). Hobiak eta gorpuk bizidunei zuzendutako errepresio-mezu orokor bat zuzentzeko dispositibo aktiboak ziren.

Presoen kasuan, okupazioaren zentzuaz aipatu bezala, informazioaren bidezko sailkapen-lana martxan jartzen zen. Sailkapenari ekiteko dispositibo garrantzitsuenetako bat kontzentrazio-esparrua izan zen. Mota horretako ehunka dispositibo izan ziren Francoren Espainian. Javier Rodrigok egitura horien izaera militarra eta behin-behinekoa azpimarratu du, Armadak susmagarriak bildu eta sailkatzen hasteko makineria gisa, baita «kate garbitzaile eta errepresiboaren lehen katebegi» gisa ere (2008: 113). Gerrak eta errepresioak orokorrean paisaiaren militarizazioa eragin zuten heinean, egitura zibil askoren transformazioa eragin zuen kontzentrazio-eremuen sarea osatzeak. Hernández de Miguel kazetariak espazio-tipologia bat proposatu izan du (2019: 72). Kontzentrazio-eremuen % 15 inguru eraikin erlijioso —komentu, monasterio— zein gaztelu eta antzeko eraikin historikoetan kokatu zen. % 12 fabrika, biltegi eta kontserba-industrietan. % 10 zezen-plaza, hipodromo eta futbol-zelaia bezalako ekitaldi publikoetarako espazioetan. Asistentzia sozial eta hezkuntza-eraikinetan kontzentrazio-eremuen % 9 inguru ezarri zen. Eta, azkenik, % 25-30 *ex novo* eraikitako kontzentrazio-esparruak izan ziren, espazio irekietan.

Kontzentrazio-eremuak sailkapen-lanari ekiteko espazioak ziren, indibiduo bakoitza bere zigor edo barkamenaren zain zegoelarik. Hala ere, (etengabeko) gerraren testuinguruak eta prozesu estatugileak presoen masa erraldoia berehala erabiltzera bultzatu zuten. Laster Langile Batailoak (*Batallones de Trabajadores*, BT) sortu ziren, oraindik prozesatu gabeko pertsonekin, baina jada Espainia Berriaren mesederako lan egin beharko zutenak. Progresiboki bortxazko lanen sistema egituratuz joan zen, esaterako, 1937ko maiatzean presoen «lanarekiko

eskubidea» arautzen zuen dekretuaren bidez<sup>8</sup>. Gero, kontzentrazio-esparruetan jada sailkatutako presoentzat —«*desafecto*» edo «aurkako» direlakoentzat— Soldadu Langileen Diziplina Batailoiak sortu ziren (*Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores*, BDST). 1942ra arte, 50.000 preso inguruk mota horretako batailoietan bortxazko lana egin behar izan zuten (Mendiola, 2009: 72-73).

Puntu honetan, 1936an hasitako *gerra luzearen* ideian sakonduz, errepresioaren eta gerra egitearen arteko beste lotura bat aipatzeko modukoa da. Antzeman daitekeen moduan, bai prozesatu gabeko presoeren artean, baita jada prozesatuaren artean ere, bortxazko lanaren egitura eta funtzionaltasuna eremu militarren barnean garatzen zen. Soldaduen Diziplina Batailoiak Francoren Armadaren parte izan ziren gerra-egiturak eta hamaika «lan zikin» egiteko. Horrek horrela izaten jarraitu zuen, baita 1939. urtearen ostean ere. 1940ko hamarkadan, Langileen Batailoiak izan ziren Pirinioetan hainbat azpiegitura eraiki zituztenak, horien artean «P lerroa» ezaguna, hau da, Espainia frankistak Frantziarekiko mugalde osoan zehar eraiki zuen hesi gotortu erraldoia (Zuazúa, Zuza eta Mendiola, 2017: 100-103). Horrela, errepresioaren garapena *gerra luzearen* logikan sartuta egon zen beti, baita balizko gerra konbentzional bati begira ere, hau da, Aliatuen balizko inbasio bati begira.

1938an, «erredentzioa» delakoaren diskurtso nazionalkatolikoa gorpuzten hasi zen: oinarrian, presoek ez zitzairen soilik zigorra aplikatu behar, horiek Espainiaren garaipenean eta berreraikuntzan lan egin behar zuten. Errepresio-sistema frankistaren ideologoen Errepublikaren espetxe-politika liberala suntsitzeari ekin zioten, horren ordez, zigorra eta barkamenaren inguruko doktrina tradizionalista egituratu zutelarik (Gómez Bravo, 2007: 147-150). Zigorren politika horiek errepresioaren kate tekno-operatiboaren arabera antolatzen zirela gogoan izanik, lan-sistema bereziak sortu ziren gizon eta emakumeentzat. Gizonek destakamentu penaletan lan egiteko aukera izango zuten, kanpoaldeko jardueretan —azpiegituren eraikuntzan, adibidez—, eta, emakumeek, aldiz, lanaren bidezko zigorra espetxeen barnean bete behar izango zuten. Izan ere, frankismoaren teknologia errepresiboek genero-ordena zurruna inposatu nahi zuten, genero bakoitzak lan-espezializazio zehatza izan behar zuelarik<sup>9</sup>.

---

8. *Decreto núm. 281 de 28 de mayo de 1937 proclamando el derecho al trabajo de los presos por delitos no comunes como peones o en otras clases de empleos o labores, en atención a su edad, a su eficacia profesional y a su buen comportamiento*, BOE, 1938ko urriaren 11. Eskuragai: <<https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE//1938/103/A01742-01742.pdf>> (Kontsulta: 2020-01-20).

9. Errepresio frankistaren kate tekno-operatibo guztiak genero-ordena baten inposizioaz zeharkatuta garatzen zirela esan behar da. Hobi klandestinoetan emakumeen gorpu gutxiago aurkitzen dira, exekuzioa ez baitzen emakumeen kontra erabiltzen zen metodo errepresibo garrantzitsuena. Emakume gutxiago exekutatua izatea errepresio frankistaren misoginia erotzen zen: emakumeak ez ziren subjektu politiko propioak, izaki erlazionalak baizik (*sensu* Hernando 2018). Haien bikotekide eta beste harremanen jarrera eta identitate politikoak ziren zigortzen zirenak (Solé, 2017). Gizonen kasuan, aldiz, suntsipen fisikoa askoz ere zabalduago zegoen eta, suntsipen fisiko hori eman ezean, teknologia errepresiboek gizonen identitate maskulinoa bera ere higatzen zuten. Horren adibide gisa, presoek pairatu behar zuten «espetxe-turismoan», gizonak mendeko subjektu bihurtzen ziren, guztiz ahul, emakume senideak haien biziraupen-oinarri nagusi bilakatzen zirelarik. 1930eko hamarkadan hegemonikoa zen *breadwinner* eredua («soldata-irabazle») ukatzen zitzaizen gizon presoek, euren maskulinitate forma hori praktikatzeari ukatuz ere (Aresti, 2012). Horretan datza lanaren diskurtso frankista ere: lana zen gizon presoak birgizarteratzeko bidea, lana (eta horrekin batera, soldata) zelako gizonak gizon egiten zituen elementua (Federici, 2017). Soldatapeko bortxazko lanen bidez, gizonek pixkanaka familia mantentzeko eskubidea berreskuratzen omen zuten, betiere noski, familia eredu heterosexual, katoliko eta nuklearra osatuz.

Horren adibide argia Madrilgo Bustarviejoko destakamentu penalean topa daiteke, arkeologikoki aztertua izan dena (Falquina *et al.*, 2010). Mota horretako zigor-dispositiboek errepresio frankistaren kate tekno-operatiboan azken katebegia osatzen zuten. Bustarviejo inguruan Madril-Burgos burdinbidea eraikitzen ari ziren presoak Espainia Berrian integratzeko *ia prest* zeuden. Horregatik, presoek kanpalekuak ez zuten jada hesirik edo mugimendua mugatzeko beste egiturarik. Zaindariantzako postuak zeuden kanpalekuaren kanpoaldean, baina ez barruko presoak kontrolatzeko —kontzentrazio-esparru eta espetxeetan bezala—, baizik eta kanpoaldeko balizko erasoetatik babesteko —gerrillaren fenomeno zela-eta—. Preso guztiak barrakoi berean bilduta zeuden, baina, instalazio ofizialetatik hurbil, haien senideentzako etxeak eraikitze eskubidea zuten. Etxola xume batzuk baino ez, baina familia katoliko eta espainiar «arrunta» bilakatzeko lehen pauso gisa. Horrela, familia zen presoei aplikatzen zitzaien disuasiozko erreminta garrantzitsuena: ez zuten ihes egingo eta lanari gogor ekingo zioten familia behingoz berrosatu ahal izateko.

Izan ere, frankismoaren zigor-politikaren oinarria suntsitze-berreraikitze politika bat zen. Teknologia errepresiboak «gorria»/«arriskutsua» suntsitu behar zuten, fisikoki —hobi klandestinoetan lurperatutako gorpu bihurtuz—, psikologikoki —kontzentrazio-esparru eta espetxeetako bizi-baldintza bortitzen bidez— eta politikoki —Estatu Berriaren mesederako bortxazko lanen bidez—. Errepresio-sistema frankistan, etsai politikoei bi bilakaera posible eskaintzen zitzaien: hobia ala zigorraren bidezko erredentzia. Suntsitze eta berreraikitzearen arteko harreman hori inon baino hobeto 1940ko hamarkadatik aurrera berreraikitako herri eta hirietan antzematen da. Adibide esanguratsuenetako bat Aragoiko Belchite herria da: 1937ko udan «gorri»ek suntsitua, Francok hondakinak mantentzea erabaki zuen, Espainiako etsaien ankerkeriaren adibide gisa. Hondakinen ondoan, metro batzuetara, Belchite *Berria* eraiki zen, hain zuzen ere gerra-presoen bortxazko lanaren bidez (Michonneau, 2014).

Azkenik, lehen aipatutako *nekropolitika* delakoaren ideia berreskuratuz, hobi klandestinoek «etsai» direlakoan heriotza-espazioak osatzen zituzten, arerioak lurperatutako gorpu deshuminizatuak bilakatu. Garaileentzat, aldiz, beste parametro nekropolitikoak aplikatu ziren. Horiek ez ziren «gorpu» soil bihurtu, baizik eta «Espainiaren alde eta Jainkoaren alde eroriak» («*Caídos por Dios y por España*»), herri eta hiri horietan guztietan omenezko monumentuak eraikiz. Hildako loriatsu horiek gerraren etengabeko oroitzapena materializatu behar zuten, baita etorkizunerako etsenplu eta Erregimenaren biziraupenaren berme garrantzitsu izaten jarraitu ere (Castro, 2008; Box, 2010; Ferrándiz, 2012).

## 5. Ondorioak

Gaur egun, hobi klandestinoak *galtzaileen dispositibo* esanguratsuenetako bat den bezala, «erori» eta «martiri» direlakoan iruditeria frankistaren plakak, monumentuak eta gurutzeak *garaileen dispositiboak* dira. Elementu horiek guztiak gaur egungo gizartean irauten duten heinean, gaur egungo gizarteek horiek nola edo hala kudeatzeko beharra sortzen da. 2007ko «Memoria Historiakoaren Lege» gisa

ezagutzen den horretan<sup>10</sup>, eta kritika asko plazaratu daitezkeen arren, iragana gaur egungo kudeaketarako esparru dela azaltzen da. Lezio horrek indarrean jarraitzen du.

Beraz, iraganaren kudeaketa honetan azken galdera batzuk planteatzeko une aproposa da honakoa. Hasteko, zenbateraino posible al da aipatutako molde narratibo hegemonikoak zalantzan jartzea edo, are gehiago, gauditzea? Memoria historikoari buruzko mugimenduak eta 2000. urtetik hona zabaltzen ari diren zenbait planteamendu historiografiko zentzu horretan doazela dirudi. Posible da «Gerra Zibila» delakoaren konbentzioa gaudituko lukeen historiografia lantzea. Ikusi bezala, hori hainbat zentzutan egin daiteke. Alde batetik, Espainiakoa Europar Gerra Zibila delakoan kokatuz eta, horrela, Francoren Diktadura nazioarteko beste esperientziengandik elikatzen den perspektiba batekin aztertuz. Beste aldetik, «gerra zibila» zentzua birplanteatu eta tipologia ezberdinen arteko elkarren arteko nahaste eta lotze estua mahai gainean jar daiteke: gerra zibilak konbentzionalak ala ez-konbentzionalak izan daitezke, simetrikoak eta asimetrikoak, erregularrak eta irregularrak. 1914tik aurrera zabaldu zen nazioarteko testuinguruan, politika eta biolentzia elkarren arteko dinamika bateratuan garatu zirela antzeman daiteke, inoiz baino gehiago, edo, behintzat, «gerra» forma argietan materializatu. Politikak gerra eragin eta ahalbidetzen zuen heinean, gerrek ez zioten errepresio-izaera zurrun bat hartzeari uko egin. Francoren diktaduraren kasuan, hori bereziki modu hertsian bete zen 1936tik aurrera martxan jarritako prozesuan. Ideia hauek nola edo hala jorratzen eta enpirikoki argudiatzen dituzten lan historiografikoek Diktaduratik heredatutako ulermen-marko globalean arrakala anitz sortu dituzte. 2020. urte honetatik aurrera, bide horietan sakontzen jarraituko dela baino ez da espero.

Hala ere, zerbaiten falta nabari da hainbat ikerketa-lan historikotan: diziplina-aniztasunerako joera nabarmenagoa. Azken hogeitau urteetan exhumazio zein beste lan arkeologikoen inguruan burututako lan guztiak ulermen historikoa zabaltzeko aukerak dira. Esate baterako, hemen erabilitako «teknologia» zentzua Estatu Berriaren gerra/errepresio dinamika bateratua ulertzeko erabilgarria izan daitekeela defendatu da. Subjektuen transformazioa burutzeko, Erregimenak hainbat dispositibo ideologiko zein material erabili zituen, horiek guztiak «kate tekno-operatibo» konplexu baten fase eta atal ezberdinak zirelarik. Horrela, Francoren Espainiako subjektu politiko nagusiak borrokalaria ziren, gizonak, lubakian soldadu eta anaia bihurtzen zirenak, *bestea* edo etsaia suntsituz/zigortuz Espainia Berria eratzen zutenak. Hilez gero, «erori» edo «martiri» bihurtuko ziren, betirako etsenplu. Espainiaren etsaiak, aldiz, hobi komunek gordetzen dituzten gorpu sasi-ahaztu bihurtuko ziren, edo, akaso, Erregimenaren prozesu errepresibo eraldatzailean barneratutako eta modelatu beharreko gorputzak. Horrela, Estatu Berriak subjektu politiko gisa suntsituko zituen, «gorri» gisa desagerrarazi, progresiboki Espainia nazionalean subordinatu gisa berriro integratuak izateko. Eraldatze-sistema teknologiko horren dispositibo nagusi batzuk kontzentrazio-esparruak, espetxeak eta destakamentu penalak izan ziren.

---

10. *Ley 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura*, BOE, 2007ko abenduaren 27a. Eskuragai: <<https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-22296-consolidado.pdf>> (Kontsulta: 2020-01-20).



Esan bezala, aipatutako teknologia hauek guztiak, esaterako, hobi klandestinoek eta «erorien monumentuek», gaur egun oraindik irauten duten dispositiboak dira. Horiek kudeatzeko beharrea, ikerketa historikoak erabateko garrantzia izan behar du, beste profesional batzuek eta gizarte zibilak bezala. Horrela, progresiboki, oinordetzan jasotako molde narratibo zaharrak gainditzeko gai izan gaitzke, Francoren *gerra luze* hori hobeto ulertzeko eta orainaren gaineko kontrola hartzeko. Horrek beste teknologia batzuen gauzatzea ekarriko luke: iraganaren kudeaketarako teknologia demokratizatzaile batzuen, alegia.

## Bibliografía

- Aguilar, P. (2008): *Políticas de la memoria y memorias de la política*, Alianza, Madrid.
- Aguilar, P. eta Payne, L.A. (2018): *El resurgir del pasado en España. Fosas de víctimas y confesiones de verdugos*, Taurus, Madrid.
- Alonso Ibarra, M. (2016): «*Vencer y convencer. Una aproximación a la fascistización del combatiente sublevado y la construcción del consenso en la España franquista (1936-1939)*», in F. Cobo Romero, C. Hernández Burgos eta M.A. del Arco Blanco (ed.), *Fascismo y modernismo. Política y cultura en la Europa de entreguerras (1918-1945)*, Comares, Granada, 107-121.
- Altaffaylla (2018 [1986]): *Navarra 1936. De la esperanza al terror*, Txalaparta, Tafalla.
- Anderson, P. (2017): *¿Amigo o enemigo? Ocupación, colaboración y violencia selectiva en la Guerra Civil española*, Comares, Granada.
- Aresti, N. (2012): «Masculinidad y nación en la España de los años 1920 y 1930», *Mélanges de la Casa de Velázquez*, 42, 2, 55-72.
- Aróstegui, J. (2004): «Memoria, memoria histórica e historiografía: precisión conceptual y uso por el historiador», *Pasado y memoria: Revista de historia contemporánea*, 3, 15-36.
- Babiano Mora, J.; Gómez Bravo, G.; Míguez Macho, A. eta Tébar Hurtado, J. (2018): *Verdugos impunes. El franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos*, Pasado & Presente, Bartzelona.
- Baby, S. (2018): *El mito de la transición pacífica. Violencia y política en España (1975-1982)*, Akal, Madrid.
- Bambery, C. (2015): *Historia marxista de la Segunda Guerra Mundial*, Pasado & Presente, Bartzelona.
- Balfour, S. (2018): *Abrazo mortal. De la guerra colonial a la Guerra Civil en España y Marruecos (1909-1939)*, Península, Bartzelona.
- Blanco Rodríguez, J.A. (2007): «La historiografía de la guerra civil española», *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea*, 7, <<http://hispanianova.rediris.es/7/dossier/07d014.pdf>> (Kontsulta: 2020-01-20).
- Botti, A. (2007): «La iglesia vasca dividida: cuestión religiosa y nacionalismo a la luz de la nueva documentación vaticana», *Historia Contemporánea*, 35, 451-489.
- Box, Z. (2010): *España, año cero. La construcción simbólica del franquismo*, Alianza, Madrid.
- Castro, L. (2008): «El recuerdo de los caídos: una memoria hemipléjica», *Ebre* 38, 3, 1-35.
- Cenarro, A. (2002): «Matar, vigilar y delatar: la quiebra de la sociedad civil durante la guerra y la posguerra en España (1936-1948)», *Historia Social*, 44, 65-86.
- , (2013): «Miradas y debates sobre la violencia franquista», *Ayer*, 91 (3), 241-253.
- Chaves Palacios, J. (2000): «La historiografía reciente sobre la Guerra Civil de 1936-1939 en los umbrales del nuevo milenio», *Anales de Historia Contemporánea*, 16, 409-430.

- Cuesta, J. (2008): *La odisea de la memoria. Historia de la memoria en España en el siglo XX*, Alianza, Madrid.
- Dionisio Vivas, M.A. (2012): «El Cardenal Isidro Gomá y la cuestión vasca», *Hispania Sacra*, 64 (1), 261-314.
- Errazkin, M. eta Agirre-Mauleon, J. (ed.) (2009): *1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Etxeberria, F. eta Solé, Q. (2019): «Fosas comunes de la Guerra Civil en el siglo XXI: antecedentes, interdisciplinariedad y legislación», *Historia Contemporánea*, 60, 401-438.
- Falquina Aparicio, A.; Rolland Calvo, J.; Marín Suárez, C.; Compañy, G.; González Ruibal, A.; Quintero Maqua, A. eta Maguire, P.F. (2010): «De estos cueros sacaré buenos latigos. Tecnologías de represión en el destacamento penal franquista de Bustarviejo (Madrid)», *Ebre* 38, 5, 247-271.
- Federici, S. (2017): *Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak*, Katakarak, Iruñea.
- Ferrándiz, F. (2014): *El pasado bajo tierra. Exhumaciones contemporáneas de la Guerra Civil*, Anthropos, Bartzelona.
- Foucault, M. (2009 [1975]): *Vigilar y castigar*, Siglo XXI, Madrid.
- Godicheau, F. (2012): «La guerra civil, figura del desorden público», in J. Canal eta E. González Calleja (ed.), *Guerras civiles. Una clave para entender la Europa de los siglos XIX y XX*, Casa de Velázquez, Madrid, 75-88.
- Gómez Bravo, G. (2007): *La redención de penas. La formación del sistema penitenciario franquista (1936-1950)*, Los Libros de la Catarata, Madrid.
- , (2017): *Geografía humana de la represión franquista. Del Golpe a la Guerra de ocupación (1936-1941)*, Cátedra, Madrid.
- , (2018): «“La información retrospectiva”: ocupación del territorio y clasificación de la población en el Ejército Norte», *Sancho el Sabio: Revista de cultura investigación vasca*, Extra 1, 113-124.
- Gómez Calvo, J. (2014): *Matar, purgar, sanar. La represión franquista en Álava (1936-1945)*, Tecnos, Madrid.
- González Calleja, E. (2013): *Memoria e historia. Vademécum de conceptos y debates fundamentales*, Los Libros de la Catarata, Madrid.
- , (2017): *Asalto al poder. La violencia política organizada y las ciencias sociales*, Siglo XXI, Madrid.
- González Ruibal, A. (2007): «Making things public. Archaeologies of the Spanish Civil War», *Public Archaeologies*, 6 (4), 203-226.
- , (2016): *Volver a las trincheras. Una arqueología de la guerra civil española*, Alianza, Madrid.
- Graham, H. (2012): *The War and Its Shadow. Spain's Civil War in Europe's Long Twentieth Century*, Sussex Academic Press, Sussex.
- Hernández de Miguel, C. (2019): *Los campos de concentración de Franco*, Penguin Random House, Bartzelona.
- Hernando, A. (2018): *La fantasía de la individualidad. Sobre la construcción sociohistórica del sujeto moderno*, Traficantes de Sueños, Madrid.
- Hristova, M. (2019): «El panorama de los estudios de memoria en España: enfoques emergentes», in J. Guixé, J. Alonso Carballés eta R. Conesa (ed.), *Diez años de leyes y políticas de memoria (2007-2017). La hibernación de la rana*, Los Libros de la Catarata, Madrid, 313-321.

- Kalyvas, S.N. (2005): «Warfare in Civil Wars», in I. Duyvesteyn eta J. Agnstrom (ed.), *Rethinking the Nature of War*, Frank Cass, Abingdon, 88-108.
- Marco, J. (2016): *Guerrilleros and Neighbours in Arms. Identities and Cultures of Anti-fascist Resistance in Spain*, Sussex Academic Press, Eastbourne.
- , (2019): «Rethinking the Postwar Period in Spain: Violence and Irregular Civil War, 1939-52», *Journal of Contemporary History*, 0 (0), 1-22.
- Marco, J. eta Yusta Rodrigo, M. (2019): «Irregular War, Local Community and Intimate Violence in Spain (1939-1952)», *European History Quarterly*, 49 (2), 231-249.
- Mbembe, A. (2003): «Necropolitics», *Public Culture*, 15(1), 11-40.
- Mendiola Gonzalo, F. (2009): «“Goiztik gabera lan eiten dugu soldatarik jaso gabe”. Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962)», in M. Errazkin eta J. Agirre-Mauleon (ed.), *1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 69-104.
- Michonneau, S. (2014): «Ruinas de guerra e imaginario nacional bajo el franquismo», in X.M. Núñez Seixas eta S. Michonneau (ed.), *Imaginarios y representaciones de España durante el franquismo*, Casa de Velázquez, Madrid, 25-47.
- Moradiellos, E. (2019): «El Régimen de Franco en la Europa de preguerra, guerra y posguerra (1936-1947)», in A. Esteban, D. Etura eta M. Tomasoni (koord.), *La alargada sombra del franquismo. Naturaleza, mecanismos de pervivencia y huellas de la dictadura*, Comares, Granada, 133-148.
- Muñoz-Encinar, L. (2019): «De la exhumación de cuerpos al conocimiento histórico. Estudio de la represión franquista a partir del caso extremeño», *Historia Contemporánea*, 60, 477-508.
- Nolte, E. (1996): *La guerra civil europea, 1917-1945. Nacionalismo y bolchevismo*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko Hiria.
- Núñez Seixas, X.M. (2006): *¡Fuera el invasor! Nacionalismos y movilización bélica durante la guerra civil española (1936-1939)*, Marcial Pons, Madrid.
- , (2016): *Camarada invierno. Experiencia y memoria de la División Azul (1941-1945)*, Crítica, Bartzelona.
- Pavone, C. (1990): *Una guerra civile. Saggio storico sulla moralità nella Resistenza*, Bollati Boringhieri, Turin.
- Pereira Castañares, J.C. (2019): «La Guerra Civil, guerra internacional. La farsa de la «No Intervención»», in A. Reig Tapia eta J. Sánchez Cervelló (koord.), *La Guerra Civil Española, 80 años después. Un conflicto internacional y una fractura cultural*, Tecnos, Madrid, 212-221.
- Rodrigo, J. (2008): *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la Dictadura franquista*, Alianza, Madrid.
- , (2013): *Cruzada, Paz, Memoria. La Guerra Civil en sus relatos*, Comares, Granada.
- , (2015): «Furia e historia. Una aproximación a los relatos de la guerras civiles europeas (1919-49)», *Amnis*, URL: <<http://journals.openedition.org/amnis/2295>>; DOI: 10.4000/amnis.2295 (Kontsulta: 2020-01-20).
- Solé, Q. (2017): «Executed Women, Assassinated Men: Gender Repression in the Spanish Civil War and the Violence of Rebels», in L. Hilbink eta O. Ferrán (ed.), *Legacies of Violence in Contemporary Spain: Exhuming the Past, Understanding the Present*, Routledge, New York, Oxon, 69-92.
- , (2019): «Pervivencia de las fosas comunes de la guerra civil española en el siglo XXI. Evidencia cultural, particularidad académica», *Historia Contemporánea*, 60, 439-475.
- Traverso, E. (2009): *A sangre y fuego. De la guerra civil europea (1914-1945)*, Publicacions de la Universitat de València, Valentzia.

- Ysàs, P. (2019): «El franquismo: de la victoria a una larga supervivencia», in A. Esteban, D. Etura eta M. Tomasoni (koord.), *La alargada sombra del franquismo. Naturaleza, mecanismos de pervivencia y huellas de la dictadura*, Comares, Granada, 5-24.
- Yusta Rodrigo, M. (2014): «El pasado como trauma. Historia, memoria y «recuperación de la memoria histórica» en la España actual», *Pandora: Revue d'études hispaniques*, 12, 23-41.
- Zuazúa, N.; Zuza, C. eta Mendiola, F. (2017): «Arqueología y memoria: las fortificaciones de frontera en Navarra bajo el franquismo (Auritz/Burgete y Orreaga/Roncesvalles)», *Trabajos de Arqueología Navarra*, 29, 97-123.
- Zubiaga, E. (2017): «Atxikimendua ala erresistentzia? Bizkaitar gizartearen erantzuna(k) "estatu berria" finkatzearen aurrean. 1937-1945», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 101, 5-26.



